

MUko bi ikasle egon ziren Karateko txapelketan Madrilen

2011/06/07

UNED-k antolatu zuren maiatzak 13-15ko asteburuan, Espainiako Unibertsitate Karate Txapelketa.

Bertan, Odei Vazquez eta Denis I Rubiok, GEPko ikasleak, parte hartu zuten, beharrezkoak diren minimak zituztela erakutsi eta gero.

Bi ikaslek, kumiten (borrokan) parte hartu zuten eta bigarren eta lehenengo kanporaketetan kanporatuak izan ziren.

Dena den, ondo pasa zutela eta datorren urtean errepikatzeko asmoa dutela esan ziguten.

Datorren ikasturterarte.

